



Ak11-2004

11/2004 PLENOKO AGIRIA

2004ko Abenduaren 17an burututako Ohizko Udal Plenoaren agiria

Aizarnazabalen, bi mila eta lau garreneko Abenduaren hamazazpian, gaueko zortzirak zirenean, bildu ziren Udaletxeko Areto Nagusian, ondoren idazten diren Jaun-Andreak, Udal Ohizko Plenoa egiteko asmoarekin, Begoña Gorrichategui Osa Idazkariaren laguntzarekin.

Bertaratu ziren Jaun-Andreak:

Alkatea: JOSE FRANCISCO LARRARTE AGIRRE.

Zinegotziak:

M^a CARMEN ARRIETA BARRENA.

JOSE ANGEL OÑEDERRA OLAIZOLA.

AROA ARTOLA SALABERRIA.

OLATZ AGIRRE ZUBIZARRETA.

ASIER SEGUROLA MANTEROLA.

GAI ORDENA

1. Azkenengo burutu zen Udal Plenoaren Agiriaren zirriborroa onartzea hala badagokio.
2. Ordainketa eta kontuak.
3. Alkate Dekretuak.
4. Iharduera baimenak.
5. Erretola aldetik Etzubi baserrira bide publikoaren errekupeziorako erreibindikazio administratiboa.
6. Lirubutegia erabiltzeko eskaera.
7. 2004ko Udal aurrekontuaren kreditu aldaketa espedientea.

1.- AZKENENGO BURUTU ZEN UDAL PLENOAREN AGIRIAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA HALA BADAGOKIO.

Alkateak Udal Plenoa zabaldu ondoren 2004ko Azaroaren 25ean burutu zen Udal Plenoko Agiriaren zirriborroa onartzeko oztoporik zegoen galdetu ondoren ahobatez onetsi zen.

- **GAIORDENETIK KANPO:**
- *Inda mendi Kultur etxeko kontratua berritzea.*

2.- ORDAINKETA ETA KONTUAK.

Ondorengo fakturak ordaintzea onetsi zen:

| IZENA | Fak.Zenb. | KONTZEPTOA | €URO |
|-----------------------|------------------|---|-------------|
| Agerre Instalakuntzak | 161 | Mikel kaleko argiteriaren erreforma | 4.640,00 |
| UTS Publizitatea | 2003012 | 500 ale Egutegiak | 1.243,52 |
| Odriozola Ardoak | 2065 | 17 zesta Askizu erreferentzia | 1.583,96 |
| Arkaitza, SA | 275 | Baltasar Etxabe kaleko urbanizazioaren 5º ziurtagiria (2 zatia) | 8.033,93 |
| Arkaitza, SA | 279 | Badenen aldakuntza | 5.655,70 |
| Joseba Jatetxea | 79067 | 15 afari. | 675,00 |

3.- ALKATE DEKRETUAK.

Gaiordenarekin jarraituz, ondorengo Alkate Dekretu hauen berri eman zen:

▪ **ALKATE DEKRETUA 13-2004**

Gurbegi SL sustatzaileak udal honetan aurkeztu duen dokumentazioa ikusi ondoren, zera ebazten dut:

Lehenik: Hasierako onarpena ematea “Aizarnazabal udalerriaren planeamenduko Arau Subsidiarioen A.I.U.2 Arearen URBANIZAZIO PROJEKTOARI (2.1. Egikaritzapen unitatea)” dokumentuari Iñigo Marin Landa Bide, kanal eta portuetako injenieroak idatzitakoa eta Gurbegi S.L.k sustatutakoa, 2004ko azaroaren 23an Euskal herriko bide, kanal eta portuen kolegio Ofizialak bisatutakoa.

Bigarrenik: Informazio publikoko tramitean jartzea aipaturiko dokumentu hori, iragarpena Probintziako Aldizkari Ofizialean eta zirkulazio handieneko egunkarietako batean argitaratuz, hamabost lan-eguneko epean. Espedientea, Obrak eta Hirigintza Departamentuan aztertu ahalko delarik, eta bidezko iritzitako alegazioak aurkeztu.

▪ **14/2004 ALKATE DEKRETUA**

Dekretu honen bidez “Aizarnazabal Udalerriaren Planeamenduko Arau Subsidiarioen A.I.U.2 Arearen” Xehetasun Azterketa (2.1. Egikaritzapenen unitatea)ri behin betiko onarpena ematea xedatzen da, Santiago Cecilia ga Urresti arkitektoak idatzitakoa 2004ko irailean eta GURBEGI, SLk sustatutakoa, ez delako inolako erreklamaziorik aurkeztu publikoari iragarririk egon den epearen barruan.

▪ **ALKATEAREN DEKRETUA 15-2004**

Gurbegi SL sustatzaileak udal honetan aurkeztu duen dokumentazioa ikusi ondoren, zera ebatzen dut:

Lehenik: Hasierako onarpena ematea “Aizarnazabal udalerriaren planeamenduko Arau Subsidiarioen A.I.U.2 Arearen KONPENTSAZIO PROJEKTOARI (2.1. Egikaritzapen unitatea)” dokumentoari Susana Ruiz Arkitektoak eta Jose A. Larrañaga industria injenieriak idatzitakoa eta Gurbegi S.L.k sustatutakoa, 2004ko azaroaren 15ean Euskal herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bisatutakoa.

Bigarrenik: Informazio publikoko tramitean jartzea aipaturiko dokumentu hori, iragarpena Probintziako Aldizkari Ofizialean eta zirkulazio handieneko egunkarietako batean argitaratuz, hamabost lan-eguneko epean. Espedientea, Obrak eta Hirigintza Departamentuan aztertu ahalko delarik, eta bidezko iritzitako alegazioak aurkeztu.

4.- IHARDUERA BAIMENAK.

❖ Iharduera espediente zenbakia: 3/2004.

Eskatzailea: Construcciones Goitia, SL. Iharduera: Aparkaletu pribatuen legalizazioa. Kokapena: Euskal Herria kalea, 1. Udalak Iharduera baimena ematea erabakitzen du, Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

❖ Iharduera espediente zenbakia: 4/2004.

Eskatzailea: Leiholan Orío, SL. Iharduera: Metalisteria. Kokapena: Erribera, 4. Udalak Iharduera baimena ematea erabakitzen du, otsailaren 27ko 3/1998 Legean ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

5.- ERRETOLA ALDETIK ETZUBI BASERRIRA BIDE PUBLIKOAREN ERREKUPERAZIORAKO ERREIBINDIKAZIO ADMINISTRATIBOA.

AURREKARIAK.- Aizarnazabalko Udalak "Erretola aldetik Etzubi baserrira doan bide publikoaren errekuperaziorako erreibindikazio administratiboko espedientea" hastea erabaki zuen, 2004ko maiatzaren 18ko Udalbatzak harturiko akordioaren bitartez. Ondoren, espedientean jasotako dokumentazioa partikularraren audientziara jartzea erabaki zuen urriaren 29an, txosten juridikoa, lekukoaren aitortpena, planimetria eta Erregistroko agirien aurrean bere eskubidearen alde egoki zeritzona esateko aukera izan zezan.

Tramite horretan Angel Luis Eizagirre Larrañaga Jn.ak idatzia aurkeztu du.

ALEGAZIOAK.- 2004ko azaroaren 24ean, 900 zk.ko sarrerarekin, aurkezturiko idatzian honako argudioak agertzen dira:

- Bidea pribatua dela eta publikotasunaren alde inolako frogarik ez dagoela.
- Posesioa ez dela akreditatzen.
- Ez dela usurpaziorik egon.
- Zaborra bota zuena ez zela Eizagirre Jn.a izan.

Jarraian udalaren froga aztertzeari ekiten dio honako ondorioak adieraziz:

- Bidea eskriturretan ez agertzeari ez bazaio balorerik ematen beste eskriturretan agertzeari ere ez zaiola balorerik eman behar;
- 270. finkaren 2. inskripzioan bidea iparraldean agertzen dela, eta ez ekialdean;
- 31. finkan bidea agertzea akats bat izan daitekeela, Eizagirre Jn.aren finkaren deskripzioan ez delako agertzen bi hauek bata bestearen aurrean egonda;
- 503. finkaren deskripzioan bidea hegoaldera eta mendebaldera agertzen da, eta hori bai dela publikoa, eta ez da agertzen biderik bere ipar-ekialdean, hau da, Eizagirre Jn.aren lursailarekin muga egiten duen gunean. Beraz, Ibañarrietatik Aizarnabalera doan bidea beste hori da eta ez da alegatzailearen lurren mendebaldetik pasatzen inolaz ere;
- 41. finkaren deskripzioan hegoaldean besterik ez du bidea eta horrek ez du alegatzailearen lurrekin zerikusirik.
- Nahasketa honen ondoren zergatik eman balorerik publikotasunaren aipamenei ?;
- Azken 40 urtetan gutxienez ez du erabilera publikorik eduki;
- Lekukoek adierazitakoarekin ez dagoela ados;
- Planimetriari beste bide bat ageri dela espediente hau eragin duenarekin zerikusirik ez duena;

Bestalde, bidea pribatua dela esateko frogak: uztailaren 7an aurkezturiko idatzian jasotakoak errepikatzen dira.

Azkenik, aurreko idatzian bezala, konponbidea eskaintzen du bidea publikoa bezala uzteko prest dagoela azalduz baina, kalteordain bezala, Azpiazugainean hiru etxebizitza bifamiliarrak egiteko eskubidearen truke.

Froga gisa orain arte aurkezturiko dokumentazioa eta zinta magnetofonikoa, bere transkripzio eta guzti, onartuak izan daitezen eskatzen du.

Bukatzeko errenbidikazio espedientea baliorik gabe uztea eskatzen du.

ERANTZUNA.-

1.- Bidearen pribatasun izaera oinarritzeko alegazioak.

Uztailaren 7an aurkezturiko idatziari erantzuterakoan jaso baziren ere, funtsezkoena errepikatzea komeni da.

Partikularrak hasieratik aurkezturiko idatzi guztietan zera adierazi du, bere eskrituran bidea pribatua bezala azaltzen zela. Hitzez hitz, "... non agertzen den, bere lursailaren barne Etxubialdera joaten den bidea". Eta hori ez da batere zuzena. Bere eskriturretan ez da bidearen aipamenik jasotzen. Ez bide publikoarena ez pribatuarena. Eta horrek txosten juridikoa gaizki ulertzer darama. Txostenean ez dio, alegatzaileak esaten duen bezala, bere eskriturretan bidea agertzeak ez duela pribatua denik esan nahi. Eta horrelakorik ez du esaten ezinezkoa delako, eskritura horietan ez delako bidea agertzen inolaz ere. Horregatik du askoz ere balore gehiago beste eskritura batzuetan bidea agertzeak eta horietako batean publiko bezala agertzeak, bere eskrituran inolaz ere ez agertzeak baino.

Puntu hori argituta esan behar da alegatzaileak ez duela beste frogarik proposatzen Udalak egindakoari balorea kentzea baino: bidea 40 urtetan ez dela erabili, lekukoekin ez datorrela bat, katastroan akatsak daudela, gorputz-bidearen ezaugarriarik ez duela; udala ez diola orain arte jaramonik egin eta ez duela zergarik ordaindu.

Bestalde froga bezala aurkezten duen testigantzatik, ezer gutxi ulertzen bada ere, J. M Oliden Jn.ak bidea hortik pasatzen zela ezagutu zuela adierazten du, horrelako batean. Beraz, nekez suposa lezake pribatasunaren aldeko froga.

2.- Udalak erabilitako argudioen aurrean egindako alegazioak.

A) Inguruko lur sailen eskriturak. Planoekin laguntzen dira egoera erabat argitzeko asmoz.

* 270 finka.- Katastroko 18. zk.ko lur sailari dagokio. -1. plano-

1. inskripzioa, 1.872. urtekoa, "por el Oriente con camino carretil público" jasotzen du, argi eta garbi espediente honen xedea den bidea PUBLICO bezala jasoaz. Alegatzaileak dio 2. inskripzioan bide bat iparraldera agertzen dela eta ez ekialdean. Ez du esaten 2. inskripzioa, 1.959. urtekoa, zera diola:

"Terreno ... , cuya descripción aparece en la inscripción primera que precede, a la cual me refiero por ser conforme con la que de dicha finca se hace en el documento ahora presentado, según el cual confina por Norte con caminos públicos"

Eta hau guztia ez da kontraesankorra, ale gatzailleak aditzera eman nahi izan duen bezala. Izan ere, 1. inskripzioan jasotzen den ekialdeko bidea, guri dagokiguna, eta iparraldera jasotzen dena 2. inskripzioan desberdinak dira.

Hau guztia ulertzeko arreta berezia merezi du inskripzioen datak. Lehen inskripzioa 1.872. urtekoa da eta bigarrena 1.959.ekoa eta hori ikusita uler daiteke bi urte horien artean iparraldera beste bide bat egin zela, 2. inskripzioan lehen aldiz jasotzen dena, hain zuzen ere.

Aurreko argibide hau 270. finkaren ondoan dagoena aztertzean berretsiko dugu, hau da, jarraian doan 31. finka, katastroko 17. zk.koa.

* 31. finka.- Katastroko 17. zk.ko lur sailari dagokio. -2. plano-

Aurreko eskrituran bezala, ekialdera espediente honen xedea den bidea agertzen da, eta hegoaldera, eta hori da orain azpimarragarriena, beste bide bat agertzen da: 270. finkaren iparraldean, bere 2. inskripzian, jaso zen bide berbera. Datoa ematen digun eskritura 1.956koa da.

Beraz, garbi esan liteke katastroko 17 eta 18 lur sailen artean, 1.872 eta 1.956. urteen artean bide bat egin zela eta eskrituretan jaso zela. Eta, dudarik gabe, 17 eta 18 lur sailek, Erregistroko 270. eta 31. zk.ietako finkek bere ekialdera orain dagokigun bidea dutela muga bezala.

Ondorioz, kontraesan bakarra alegatzailearena den Erregistroko 67. finka da, katastroko 25 lur saila, bere mendebaldeko muga ez duelako bidea aipatzen. - 3. plano-

* Hurrengo ustezko nahasketa 503. finkarekin dator. Katastroko 22. lur saila. - 4. plano-

Ibañarrietatik Aizarnazabalera doan bidea Hegoaldera eta Mendebaldera agertzen da, eta ez hegoaldera, dio alegatzaileak.

Baina horrek ez du udalaren jarrera oztopatzen zeren eta egia da lur horren hego-mendebaldetik bide berri bat egin zela; beste bide bat, partikular batzuen interesengatik eta beraien lurretatik. Berriro ere azpimarratu beharra dago, 503. finkaren datuak ematen dizkigun eskritura 2.000 urtekoa dela. Eta horregatik jasotzen du bide berria.

Ekialdera berriz Etxubi baserriaren lurak jasotzen ditu Etxubi baserriarena izandako lurretatik egindako zatiketa batetik datorrelako eta Etxubiko lurak bidea gaindi zirelako.

Udalaren interpretazioa da, beraz, Ibañarrietatik Aizarnabalera doan bidea Etxubi baserriaren lurretatik pasa ondoren bikoiztu egiten dela, ekialdera katastroko 17 eta 18. lur sailen eta Eizagirre Jn.aren lurren artean, eta mendabaldera katastroko 22. lur sailaren ertzetik. Eta egoera honek ez du suposatzen espediente honetan eztabaidatzen den bidea bere izaera eta errealitatea mantentzen ez duenik. Azken batean, 4. planoan jasotzen den bezala, argi ikusten da bide berri ezberdinak egin direla inguru horretan, planimetriari eta argazkietan ikusten direnak ere.

B) Lekukoak.

Interpretazio hau berretsi egin da bertako bizilagunen artean egindako lekukotzako frogan. Izan ere, bost lekuko berretsi dute:

- Ibañarrietatik Aizarnabalera datorren bidea publiko bezala ezagutu dutela, Etxubi baserri ondotik doan zatian barne;
- Eizagirre Jn.aren lur sailaren ondotik doan zatia publiko bezala ere erabili dutela;
- Eta beraietako batentzat, gainera, bere lur sailera iristeko sarbide bakarra da, esku artean dabilkigun bide zati hori.

Azken lekuan aipaturiko kasua, Olaizola Jn.arena arreta berezia merezi du alegatzailearen beste argudio bat atzera botatzeko balio duelako. Hau da, erabilerarena. Erabilera galdu zela aspaldi azpimarratzen du behin eta berriro alegatzaileak eta horrek bidea nuloa bihurtzea suposatzen duela. Nola ez da erabiliko ba lur sail zehatz baten sarbide bakarra izan denean ?

Bidearen erabilera nahitaezkoa dela Katastroko 3. poligonoko 18. lur sailaren jabearentzat egiaztaturik, bere erabilera azken urtetan dudatik at gelditu dela uler daiteke eta dauden datu guztien arabera posesioa akreditatua izan dela baieztatu egiten da.

3.- Usurpazioaren egilea ez dela Eizagirre Jn.a izan.

Gogora ekarri behar da Eizagirre Jn.ak apirilaren 28an aurkezturiko idatzian esandakoa:

"Horrenbestez, bidea pribatua izanik, bertan bere jabeak egiten duela edo ez duena egiten, ez dio inori azaldu behar, ezta Aizarnabalgo Udala ri ere".

Esaldi horrekin, lur sailen erabilerak eta bertan egiten den edozein obra, lur mugimendua edo isurketa, aurrez udal baimena behar dutela erabat ahazteaz gain (Lurzoru Legearen 178. artikulua), Eizagirre Jn.ak zaborra berak bota zuela baiesten zuen, azken batean bere lurretan zaborrak botatzeko eskubidea errebindikatzen ari zelako. Horregatik, orain egindako alegazioa ez da oso ulergarria. Edozein modutan, horrela balitz, zaborra kentzeko inongo oztoporik ez luke izan behar Eizagirre Jn.ak, bere lurra bere onera ekarrita eta txukunduta ikusteko.

ONDORIOA.-

IKUSIRIK espedientean jasotako froga guztia, eta bereziki, planimetria eta kartografiaren inguruan Udal Arkitekto Aholkulariak egindako txostena, inguruko lurren erreferentzi erregistralaren azterketa lana eta beraien inguruko txosten juridikoak, lekukoek testigantzak eta gainerako froga bideak;

IKUSIRIK partikularrak egindako alegazio guztiak eta aztertutik bertatik sortzen diren frogak;

KONTUAN IZANIK interpretazioa orokortasunean egin behar dela eta bere osotasunean, eta dokumentazio guztiaren azterketatik bidearen publikotasunaren aldeko indizio ugariak daudela eta pribatasunaren aldekorik ez dela agertu;

KONTUAN IZANIK zenbait herritarrek eskatu diotela Udalari bide horren erabilera publikoaren alde bete betekizunak, legeak xedatu bezala, gauza ditzala;

JAKINIK gainera Eizagirre Jn.ak behin eta berriro bere lurretan hirigintzako etekin bat lortu nahian dabilela, bidearekin izaten ari den arazo honen kontura; eta bere asmoa inolaz ere bideragarria ez izateaz aparte, -ezinezkoa delako lur ez urbanizagarrian horrelako probetxamendurik bideratu, Lurzoru Legea eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arautegiaren arabera (82/98 Dekretua)-, espedientean zehar mantentzen ari den jarreraren oinarria ere izan litekeela udala bere interes ilegalekara makurtu nahi izan duelako.

HAU GUZTIARENGATIK, Udal Plenoak ahobatez, zera erabakitzen du:

1. Espedienteari bukaera ematea eta Ibañarrietatik Aizarnazabalera doan bidea, Etxubi baserriaren ondoreneko zatian, jabari publiko bezala udal ondarera berreskuratua aitortzea.
2. Angel Luis Eizagirre Larrañaga Jn.ari hamabost eguneko epea ematea egindako usurpazio atzera itzuli, bidea garbitu eta bere onera itzuli dezala eskatu, espresuki ohartaraziz horrela egingo ez balu Udalak subsidiarioki gauzatu ahal izango duela, bere kontura.
3. Udalak, bidea, orain arte bezalako forma eta itzuraz mantentzea bertan inolako obrarik egin gabe.

6.- LIRUBUTEGIA ERABILTZEKO ESKAERA.

Gaiordenarekin jarraituz, Joseba Manterola Larrañagak egindako eskaera irakurri zen, hertan, herriko liburutegian, astelehen, astearte eta ostegunetan 5:30etatik 6:30etara arratsaldean, klase partikularrak eman ahal izateko eskatzen du.

Liburutegia horretarako ez delarik, Udaletxe artxiboko ondoko gela lagatzea erabakitzen da.

7.- 2004KO UDAL AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, 61.000 €uroko diru kopuruarekin. Aurrkontua honela osaturik geratzen da.

GASTUAK

| Kapitulua | €uroak. |
|------------------|---------------------|
| 1 | 278.875,00 |
| 2 | 172.852,00 |
| 3 | 10.000,00 |
| 4 | 107.733,00 |
| 5 | 0 |
| 6 | 386.826,97 |
| 7 | 11.200,00 |
| 8 | 0 |
| 9 | 40.900,00 |
| Guztira | 1.008.386,97 |

DIRU-SARRERAK

| Kapitulua | €uroak. |
|------------------|---------------------|
| 1 | 160.100,00 |
| 2 | 120.856,00 |
| 3 | 124.065,00 |
| 4 | 312.095,00 |
| 5 | 2.100,00 |
| 6 | 0 |
| 7 | 2.600,00 |
| 8 | 286.570,97 |
| 9 | 0 |
| Guztira | 1.008.386,97 |

Bigarren- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Pleno hau gaueko bederatzi eta erdietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA,